# ONGI ETORRI ARRASATERA

## ARRASATE te da la bienvenida

## Baliabide gida

Guía de recursos

Euskara · Castellano



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

# ONGI ETORRI

Kaixo lagun, esku artean duzun baliabideen gida honek tresna probetxugarria eta eraginkorra izatea baino ez du helburu Arrasatera heldu berri zareten guztiontzat. Gida hontan, zerbitzu eta baliabideak aurkituko dituzu.



# BALIABIDEGIDA

Guía de recursos

# BALIABIDE MAPA

Mapa de recursos

Mapa honetan, ondorengo baliabide gidan agertzen diren baliabideen kokapena azaltzen da. Informazio zehatzagoa eta deskribapenak barrualdean aurkituko dituzu.






# GAIAK

**Erroldatzea**
Empadronamiento

**Enplegua**
Empleo

**Kultura aisialdia eta kirola**
Cultura, ocio y deporte

**Harrera,orientazio eta informazio zerbitzua**
Servicio de acogida, orientación y formación

**Etxebizitza**
Vivienda

**Hondakinak**
Residuos

**Osasuna**
Sanidad

**Gizarte zerbitzuak**
Servicios sociales

**Emakumea eta berdinatsuna**
Mujer e igualdad

**Hezkuntza**
Educación

**Informazio, salaketa eta aholkularitza juridikorako bulegoa**
Oficina para solicitar información, realizar denuncias y recibir asesoramiento jurídico

**Sexologia zerbitzua**
Servicio de sexología

**Hizkuntzak**
diomas

**Gainerako informazio interesgarria**
Otra información de interes

# Erroldatzea

## Empadronamiento

Herriko Udalan izena ematea da erroldatzea. Etorri berria bazara (legezko egoeran egon ala ez) eta Udaleko erroldan izena ematen baduzu, herriko bizilagun bihurtuko zara eta hainbat eskubide lortuko duzu. Derrigorrezkoa da hauetarako sarbidea lortzeko: osasun-arreta, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza. Erroldatzea pertsonala da, beraz ezin du inork beste pertsona bat bidali bere izenean izena eman dezan.

El empadronamiento es inscribirse en el ayuntamiento del municipio. Si has llegado hace poco (estés en situación legal o no) y si te inscribes en el padrón municipal, te convertirás en vecino del municipio y podrás obtener diversos derechos. Es obligatorio para acceder a: atención sanitaria, servicios sociales y educación. El empadronamiento es personal, por tanto, nadie puede enviar a una persona en su nombre para la inscripción.

### BAZ

Biztanleen Arreta Zerbitzua
Oficina de Atención a la Ciudadanía

01

Arano eta Garcia maisu-maistrak, 8

943 25 20 00

Astl.-Osti. | Lun.-Vie. : 8:30 > 19:00
Larun. | Sáb. : 9:00 > 13:00

www.arrasate.eus

### Honako dokumentuak aurkeztu behar dituzu:

Documentación a presentar para empadronarse:

- BAZen emango dizuten eskaera ofiziala.
- Identifikatzeko agiri ofiziala (NAN, AIZ edo pasaportea indarrean), baita fotokopia bat ere.
- Etxebizitzaren erabilera egiaztatzen duen dokumentua (jabetza-eskritura, alokairu kontratua, etab.), baita fotokopia bat ere.

- Hoja de solicitud que te darán en el BAZ.
- Documento de identificación oficial (DNI, NIE o pasaporte en vigor)
- Documento que acredite el uso de la propiedad (escritura de la propiedad, contrato de arrenda miento, etc.), así como una fotocopia del mismo.

# Harrera, orientazio eta informazio zerbitzua

## Servicio de acogida, orientación y formación

Bizilagun berriarentzat herrian eta bailaran dauden baliabideen inguruko informazio pertsonalizatua ematen duen zerbitzua da (baliabideak, ikastaroak, etab.).

Este servicio ofrece información personalizada para la nueva vecina o el nuevo vecino en torno a los recursos existentes en el municipio y en el valle (recursos, cursos, etc).

### HARRERA ZERBITZUA

Ekin emakumeak elkartea

Asociación Ekin Emakumeak

02

Pablo Uranga, 4 behea

943 79 83 70

Astl.-Asteaz. | Lun.-Mie. : 16:00 > 18:00
Astear. | Mar. : 10:30 > 12:30

aniztasuna@ekinemakumeak.eus

# Osasuna

## Sanidad

Asistentzia sanitarioa publikoa eta doakoa da. Lehen mailako asistentzia Osakidetzako osasun zentroan ematen da. Osasun-arreta jasotzeko osasun txartel indibiduala (OTI/TIS) lortzea beharrezkoa da. Hau, osasun-zentroan eskatu behar da eta ezinbestekoa da errolda-ziurtagiria eramatea.

La asistencia sanitaria es pública y gratuita. La asistencia primaria se presta en el centro de salud Osakidetza. Para recibir la asistencia sanitaria es preciso obtener una tarjeta de salud individual (OTI/TIS). La tarjeta debe ser solicitada en el centro de salud, y es imprescindible llevar el certificado de empadronamiento.

### ANBULATORIOA Lehen mailako arreta
AMBULATORIO Atención primaria

03

Nafarroa Etorbidea z/g

943 03 52 50

### ESKUALDEKO HOSPITALEA
HOSPITAL COMARCAL

03

Nafarroa Etorbidea z/g

943 03 53 00

### LARRIALDIAK 24 ordu.
EMERGENCIAS 24H.

03

Nafarroa Etorbidea z/g

112 · 943 03 53 00

# Hezkuntza

Educación

Arrasaten ikastetxe publikoak eta itunpekoak daude. Heziketa derrigorrezkoa da 6 eta 16 urte bitarteko guztientzat. 6 urte baino gutxiagoko haurrentzat ere hezkuntza zentroak daude. Matrikula garaian matrikulatu behar da. Epez kanpo etorriz gero Hezkuntzako eskolatze –batzordeak banatzen ditu ikasleak.

Ikastetxe guztiek dute beka sistema, barnekoa edo Eusko Jaurlaritzakoa. Bekak eta laguntzak ikastetxean izapidetzen dira. Bete beharreko baldintzak, data garrantzitsuak eta bestelako informazioa kontsultatzeko, 'Bekak, laguntzak eta diru laguntzak' atala kontsulta daiteke, www.hezkuntza.net web orrian.  Informazio gehiagorako jar zaitez ikastetxearekin harremanetan.

Heldua bazara, badaukazu ikasteko aukera ere. Horretarako daukazu Helduen Heziketa Iraunkorrerako zentroa (HHI). Goi mailako eta lanerako prestakuntza eskaintzen dituzten bestelako zentroak ere baditugu gure eskualdean. KZ-GUNEA liburutegiko 3. pisuan kokatzen da, internet erabiltzen eta sarean nabigatzen doanik ikasteko gunea da.

En el municipio de Arrasate existen centros docentes públicos y concertados. La educación es obligatoria para todas las personas con edades comprendidas entre los 6 y 16 años. También existen centros educativos para menores de 6 años. Existe un tiempo determinado para matricularse en los centros. Si has llegado a Arrasate a mitad de curso, será la Comisión de Escolarización del Gobierno Vasco la que decida a que centro irá el estudiante.

Todas las escuelas cuentan con un sistema de becas, internas o del Gobierno Vasco. Las becas y las ayudas se tramitan desde la escuela. Para consultar los requisitos, fechas e información relevante, puede consultar la sección 'Becas, ayudas y subvenciones' en www.hezkuntza.net. Para obtener más información, póngase en contacto con la escuela.

Si eres una persona adulta también tienes la oportunidad de aprender. Para ello tienes el centro de Educación Permanente de Adultos (EPA), donde se imparten estudios básicos, la educación secundaria obligatoria, castellano, euskera básico e inglés, y asimismo alfabetización y preparación para realizar el acceso a la universidad. También existen otros centros en la comarca que ofrecen formación de grado superior y ocupacional. El centro KZ-GUNEA se encuentra ubicado en el 3º piso de la biblioteca, en el que se aprende gratuitamente el uso de Internet y a navegar en la red.

| **ADINA URTEKA** · Edad en años | **HEZKUNTZA MOTA** · Tipo de educación |
|---|---|
| **0-6** | Haur Hezkuntza · Educación Infantil |
| **6-12** | Lehen Hezkuntza · Educación Primaria |
| **12-16** | Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza · Educación Secundaria Obligatoria |
| **15-17** | Oinarrizko Lanbide Hastapena · Formación Profesional Básica |
| **16-18** | Batxilergoa / Erdi mailako Heziketa zikloak<br>Bachillerato / Ciclos Formativos de grado Medio |
| **18tik aurrera**<br>A partir de 18 | Helduentzako Hezkuntza Iraunkorra / Goi mailako Heziketa Zikloak / Unibertsitatea<br>Educación Permanente de Adultos (EPA) / Ciclos Formativos de grado Superior / Universidad |

## HAURRESKOLAK (0-2 urte)
HAURRESKOLAK (0-2 años)

05

BEDOÑABE: 943 79 76 86

MUSAKOLA: 943 79 13 03

www.haurreskolak.eus

## UDAL HAUR ESKOLA (0-3 urte)
HAUR ESKOLA MUNICIPAL (0-3 años)

06

UMEZAINTZA: 943 77 20 25

URIBARRI: 943 77 20 25

www.haurreskolak.eus

## ARRASATE HERRI ESKOLA (2-12 urte)
ARRASATE HERRI ESKOLA (2-12 años)

07

BEDOÑABE – 2-6 años: 943 79 76 86

MUSAKOLA - 2-6 años: 943 79 13 03

ERGUIN – 6-12 años: 943 79 77 74

www.arrasateherrieskola.hezkuntza.net

## ARRASATEKO INSTITUTUA (12-18 urte)
ARRASATEKO INSTITUTUA (12-18 años)

08

Santa Teresa 24 - 25

12-16 años: 943 79 20 38

16-18 años: 943 79 83 00

www.arrasatebhi.hezkuntza.net

## HELDUENTZAKO HEZKUNTZA IRAUNKORRA (18 urtetik aurrera)
EDUCACION PERMANENTE DE ADULTOS (EPA) (A partir de 18 años)

10

Arrasate Pasealekua, 1

943 77 11 72

www.epaarrasate.hezkuntza.net

## ARIZMENDI IKASTOLA (0-18 urte)
ARIZMENDI IKASTOLA (0-18 años)

11

0-6 años: OLARTE
3-6 años: UMEZAINTZA – URIBARRI
2-6 años: SANTA TERESA
6-12 años: GAZTELUONDO - ARIMAZUBI - SANTA TERESA
12-18 años: GAZTELUPE
A partir de 16 años: LANBIDE HEZIKETA, FERIXALEKUA

Otalora Lizentziatua, 8

943 77 20 25

www.arizmendi.eus

## OINARRIZKO LANBIDE HASTAPENA (15-17 urte)
FORMACIÓN PROFESIONAL BÁSICA (15-17 años)

12

Nafarroa Etorbidea, 21

943 79 28 90

idazkaritza@lanbidehastapena.com

# Hizkuntzak

## Idiomas

Arrasaten euskara da berezko hizkuntza eta gaztelaniarekin batera ofiziala. Euskaltegiak dira helduek euskara ikasteko eskolak. Udal Euskaltegiak euskara errefortzuak ere eskaintzen ditu ume eta nerabe etorkinentzat (Arrasaten jaio ez direnentzat), eta ikastetxeetatik bideratuta joan ahalko dira. Badira ere forma ludiko batean oinarrizko euskara ikasteko helduentzako programak (Auzoko).

El euskera es el idioma oficial junto al castellano. Los Euskaltegis son las escuelas donde los adultos aprenden euskera. En el Euskaltegi Municipal también se imparten clases de refuerzo a niños y adolescentes inmigrantes, que serán derivados desde los centros escolares. También existen programas en los que se enseña euskara de base de una forma lúdica (Auzoko).

## Euskara

### UDAL EUSKALTEGIA
EUSKALTEGI MUNICIPAL

13

Arimazubi Plaza, 2

943 79 70 77

### AEK EUSKALTEGIA

14

Garibai, 14

943 77 03 69

### AUZOKO PROGRAMA
Ekin Emakumeak elkartea

15

Pablo Uranga, 4

943 79 83 70 · 651 70 79 36

## Gaztelera

### HELDUENTZAKO HEZKUNTZA IRAUNKORRA (HHI).
EDUCACIÓN PERMANENTE DE ADULTOS (EPA).

16

Arimazubi Plaza, 2

943 79 70 77

### IMME
Inclusión de la Mujer Musulmana de Euskadi

17

Jose Luis Iñarra, 32

654 88 46 16 (Djamila)

Astl.-oste. | Lun.-Jue. : 09:30 > 11:00

# Enplegua
## Empleo

Lan bila bazabiltza jakin ezazu hiru erakunde publiko daudela Arrasaten bilaketa horretan laguntzeko, Enpleguko Institutu Nazionala (SEPE), Enpleguko Euskal Zerbitzua (LANBIDE) eta Debagoieneko Garapen Agentzia. Hiruretan izena eman dezakezu aldi berean. Aholkuak, formazioa eta enplegua eskainiko dizkizute bertan izena ematen baduzu baina horretarako, lan-baimena behar duzu. Lan baimenik ez badaukazu, aholku eske joateko eta ikastaroak egiteko aukera izango duzu. Autoenplegurako aholkua ere jaso dezakezu. Beste bide batzuk ere erabili ditzakezu enplegua bilatzeko: prentsako iragarkiak, web orriak, iragarki oholak, eta ABLEak (Aldi Baterako Lanerako Enpresak).

Si estás buscando empleo, debes de saber que en Arrasate hay tres organismos públicos para ayudarte en esta búsqueda, el SEPE Instituto Nacional de Empleo, el Servicio Vasco de Empleo (LANBIDE) y la Agencia de Desarrollo del Alto Deba. Puedes inscribirte en los tres organismos al mismo tiempo. Te facilitarán consejos, formación y empleo si te inscribes, pero, para ello, necesitar disponer de permiso de trabajo. Si no tienes permiso de trabajo, podrás ir a pedir asesoramiento y podrás realizar cursos. También puedes recibir asesoramiento para el autoempleo. Existen, además, otros recursos para la búsqueda de empleo: anuncios de prensa, páginas web, tablones de anuncios, ETTs (Empresas de Trabajo Temporal).

### LANBIDE

Lan bilaketa, formazioa eta diru-laguntzak

Búsqueda de empleo, formación y subvenciones

18

Nafarroa Etorbidea, 12

943 02 38 60

### DEBAGOIENEKO GARAPEN AGENTZIA
AGENCIA DE DESARROLLO DEL ALTO DEBA

Lanerako orientazio eta prestakuntza

Orientación y formación para el empleo

19

Mancomunidad del Alto Deba
Nafarroa etorbidea, 17

943 79 30 90

### SEPE (Estatuko Enplegu Zerbitzu publikoa)
SEPE (Servicio Público de Empleo Estatal)

Lan bilaketa, formazioa eta prestazioak

Búsqueda de empleo, formación y prestaciones

20

Nafarroa Etorbidea, 12

943 98 05 98

# Etxebizitza

Vivienda

Etxebizitza alokatu edo erosteko higiezinen agentzietara jo daiteke, edo bertako egunkarietako (Goiena) iragarkietan bilatu. Gizarte babeseko etxebizitza alokatzeko (ALOKABIDE) edo erosteko ETXEBIDEn eman behar da izena. Izen ematea BAZ-en egin daiteke. Baldintzei eta eskaerari buruzko argibideak hemen >

Para el alquiler o compra de vivienda se puede acudir a agencias inmobiliarias, o bien se puede buscar en anuncios de la prensa local (Goiena). Para el alquiler (ALOKABIDE) o compra de vivienda de protección social, hay que inscribirse en ETXEBIDE. Se puede hacer la inscripción desde el BAZ. Información relativa a las condiciones y solicitudes >

## ETXEBIDE

012 eta 945 01 80 00

www.etxebide.euskadi.eus

## ALOKABIDE

944 044 708

www.etxebide.euskadi.eus

Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak Arrasateko 18-35 urte bitarteko gazteei etxebizitza alokairua ordaintzen laguntzeko diru-laguntzak ematen ditu.

El departamento de Juventud del Ayuntamiento de Arrasate ofrece ayudas destinadas a jóvenes de 18 a 35 años para ayudar a pagar el alquiler de vivienda.

Informazio gehiago:

Para más información:

## ARASATEKO UDALA

21

www.arrasate.eus/diru-laguntzak

# Gizarte zerbitzuak

Servicios sociales

Gizarte ekintza garatzea du helburu nagusi Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak, eta horretarako koordinatu eta kudeatzen du gizarte zerbitzuetako sistemaren erakundeetara iristeko bidea. Hauek dira eskaintzen dituen zerbitzuak: informazioa, balorazioa, aholkularitza, prestazioen kudeaketa, elkarbizitzako programak, egoitzaren kudeaketa, etab.

El departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Arrasate tiene por objetivo central el desarrollo de la acción comunitaria, coordinando y gestionando el acceso a las diversas instancias del sistema de servicios sociales. Ofrece los siguientes servicios: Información, valoración, asesoramiento, gestión de prestaciones, programas de convivencia, gestión de la residencia de la tercera edad, etc.

## ARRASATEKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

SERVICIOS SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

22

Txaeta, 3 · 943 25 20 07 · ongizate@arrasate.eus

# Informazio, salaketa eta aholkularitza juridikorako bulegoa

## Oficina para solicitar información, realizar denuncias y recibir asesoramiento jurídico

Bulego honetan atzerritartasun tramiteen inguruko aholkularitza eskeintzen da. Bertan, erregularizatzeko aukeren, berriztapenen, familia berrelkarketen, naziotasunaren eta bestelako tramiteen inguruko informazioa aurkitu dezakezue. Gainera, fase administratiboan helegiteak egiten dituzte. Horrez gain, xenofobian edo arrazismoan oinarritutako diskriminazio kasuak salatu daitezke bertan. Zure herrialdean lortutako ikasketa titulua homologatzeko baldintzen inguruan informatzeko, deitu Eusko Jaurlaritzara: 012

Esta oficina ofrece asesoramiento jurídico en materia de extranjería: regularización, renovaciones, re-agrupación familiar, nacionalidad y otros procedimientos. Además, interponen recursos de fase administrativa. También aquí se pueden denunciar casos de discriminación por racismo o xenofobia. Para información sobre homologaciones de títulos universitarios o no-universitarios, realizados en otro país, llame al Gobierno Vasco: 012

### SOS RACISMO DEBAGOIENA

23

Arrasate Pasealekua, 3 behea
(1. eta 4. bulegoak)

658 74 97 55

sos.debagoiena@gmail.com

# Kultura aisialdia eta kirola

Cultura, ocio y deporte

## Bibliotekak, kultur etxea eta antzokia

Bibliotecas, casa de cultura y teatro

### UDAL BIBLIOTEKA
BIBLIOTECA MUNICIPAL

24

Azoka kalea 1

943 25 20 25

688689113

biblioteka@arrasate.eus
haurbiblioteka@arrasate.eus

### KULTURATE Kultur-etxea
KULTURATE Casa de cultura

25

Azoka kalea, 1

943 25 20 08

kultura@arrasate.eus

### SANTA MARINAKO BIBLIOTEKA
BIBLIOTECA DE SANTA MARINA

26

Toki Argi eraikina, Agerre kalea 2

943 71 19 25

auzobiblioteka@arrasate.eus

### AMAIA ZINE-ANTZOKIA
CINE-TEATRO AMAIA

27

Otalora, 2

943 25 20 41

antzokia@arrasate.eus

## Txikitxokoa

Txikitxokoa

0-6 urteko haur txikiak dituzten familiei zuzendutako aisialdi gunea da, haurrak gurasoekin batera jolasteko. Honetaz gain, edoskitzeko espazio egoki bat ere izan daiteke, baita gurasoen arteko harremanak eta elkartrukea sustatzeko ere.

Es un espacio de ocio dirigido a familias con niñas y niños de 0 a 6 años, un espacio de juego para familias. Además de una zona de juegos, puede ser un espacio adecuado para dar el pecho o para fomentar la relación y el intercambio entre padres y madres.

### TXIKITXOKOA
TXIKITXOKOA

28

Maalako Errebala kalea, Okendo Jauregia

943 25 20 88

gazteria@arrasate.eus

Astel.-Igan. | Lun.-Dom. : 9:00-14:00 / 16:00-20:00

## Ludotekak
Ludotecas

3-11 urte arteko haurrei zuzenduta, aisialdiaz gozatzeko guneak dira, euskaraz, modu aktiboan eta parte-hartzailean.

Dirigido a niñas y niños entre 3 y 11 años, son espacios de ocio en euskera, Espacios de juego y disfrute donde pasarlo bien, relacionarse con otras personas, participar en el barrio y la comunidad, desarrollar la creatividad, expresar las emociones, etc.

### ERDIGUNEKO LUDOTEKA
LUDOTECA CENTRAL

29

Okendo, 4

943 25 20 88

gazteria@arrasate.eus

### SANTAMAÑAKO LUDOTEKA
LUDOTECA DE SANTA MARINA

30

Galizia, 1 A

943 25 20 88

gazteria@arrasate.eus

### URIBARRIKO LUDOTEKA
LUDOTECA DE URIBARRI

31

Usaetxe plaza, 6

943 25 20 88

gazteria@arrasate.eus

Astl.-osti. | Lun.-Vie. : 17:00 > 20:00
Aza. > Otsa. | Novi.> Febr.: 17:00 >19:30

www.arrasate.eus/ludotekak

## Gaztetxokoak
Gaztetxokos

12-17 urte arteko nerabe guztiei zabalik, ondo pasatzeko eta euren garapenean esanguratsuak diren arlo ugari lantzeko guneak dira; pertsonen arteko harremanak, parte hartzea, sormena, autonomia, emozioak, … Gaztetxokoetan hiru zehar lerro jorratzen dira: berdintasuna, euskara eta inklusioa.

Espacios dirigidos a jóvenes de 12 a 17 años, donde pasarlo bien e incidir en su desarrollo personal a través de las relaciones, la participación, la creatividad, la autonomía, las emociones, etc.

Astl.-osti. | Lun.-Vie. : 17:00 > 20:00

### MUSAKOLAKO GAZTETXOKOA
GAZTE TXOKO DE MUSAKOLA

32

Elkano, 10

943 25 20 88

gazteria@arrasate.eus

### ERGUINGO GAZTETXOKOA
GAZTE TXOKO DE ERGUIN

33

Erguin, 27

943 25 20 88

gazteria@arrasate.eus

## SAN ANDRESEKO GAZTETXOKOA
GAZTE TXOKO DE SAN ANDRES

34

Kurtze Txiki Plaza, 2

943 25 20 88

gazteria@arrasate.eus

## GAZTEGUNEA
GAZTEGUNEA

35

943 25 20 88

gazteria@arrasate.eus

Osti. | Vie.: 18:00 > 21:00
Lar./Iga. | Sáb./Dom. : 17:00 > 21:00

# Gazte bulegoa
Oficina juvenil

Gazteei informazioa, aholkuak, orientazioa eta laguntza emateko bulegoa da. Ikastaroen, beken, lanaren, bidaien... inguruko informazio pertsonalizatua ematen da.

La oficina es para informar, asesorar, orientar y atender a los jóvenes. Se presta información personalizada sobre cursos, becas, empleos, viajes, etc.

## GAZTE BULEGOA · OFICINA JUVENIL

36

Biteri etorbidea 3 · Garibai Etxea

943 25 20 65

gaztebulegoa@arrasate.eus

Astl.-oste. | Lun.-Jue. : 11:00 > 13:00
Osti. | Vie. : 10:00 > 14:00
Astl. eta Oste. | Lun. y Jue. : 16:00 > 19:00

# Kirola
Deporte

Kirola egiteko udal instalazio ugari dago Arrasaten. LEINTZ ESKOLA KIROLA-k 6 urtetik 14 urte bitarteko neska-mutilei egokitutako kirol eskaintza antolatzen du. Gainera, hainbat kirol elkarte daude.

Existen numerosas instalaciones deportivas para la práctica del deporte. LEINTZ ESKOLA KIROLA organiza una oferta deportiva adaptada para niños y niñas de 6 a 14 años. Además, hay varias asociaciones deportivas.

## MUSAKOLAKO POLIKIROLDEGIA, ITURRIPEKO KIROLDEGIA eta UHARKAPE PILOTALEKUA
POLIDEPORTIVO DE MUSAKOLA, EL DE ITURRIPE Y EL FRONTÓN DE UARKAPE

37

943 25 20 30

kirola@arrasate.eus

## LEINTZ ESKOLA KIROLA

943 71 20 33 · 667653044

www.leintzeskolakirola.eus

## BESTE KIROL ELKARTE BATZUK
OTRAS ASOCIACIONES DEPORTIVAS

www.arrasate.eus/informacion-practica/asociaciones

## Gaztetxea
Gaztetxe

Herriko gazteei zuzendutako gune autogestionatua, euren ekimenak sustatzeko. Asanblada irekiak, ostiraletan 18:30etan.

Espacio autogestionado dirigido a la juventud.
Asambleas los viernes a las 18:30.

### AGAKO
AGAKO

38

Otalora Lizentziaduna, 10 Bis

arrasatekogaztetxea@gmail.com

## Musika
Musika

### ARRASATE MUSIKAL Musika Eskola
ARRASATE MUSIKAL Escuela de Música

39

Zarugalde Kalea, 1

943 77 05 40

### HERRIKO MUSIKA TALDEEK ENTSEATZEKO LOKALAK.
LOCALES DE ENSAYO PARA GRUPOS MUSICALES DE ARRASATE.

40

Otalora lizentziatua, 10 bis
Musakola (Depositos)

943 25 20 88

gazteria@arrasate.eus

# Hondakinak
Residuos

Arrasaten hondakinak jatorrian sailkatzen dira: ontzi arinak (edukiontzi horia), beira (berdea), papera eta kartoia (urdina), errefusa (grisa) eta organikoa (marroia). Azken biak zabaltzeko txartela Hondakinen Kudeaketa Bulegoan (Debagoieneko Mankomunitatea) eskuratu behar da. Horretaz gain, auzo guztietan sukaldean erabilitako olioa jasotzeko edukiontziak eta ehunkiak eta objektu berrerabilgarri txikiak jasotzeko edukiontziak daude. Traste zaharrak (altzariak, koltxoiak, tresna elektrikoak, etab.) edukiontzien ondoan utzi daitezke ASTEARTE guztietan 20:00etatik 22:00etara, aldez aurretik telefono honetara deituz: 943 71 19 38. Hauek eta zure etxean sortzen diren hondakin guztiak kudeatzeko beharko dituzun azalpenak eta argibideak, “BIRZIKLATU ZALANTZA BARIK” GIDAn ikusi ahalko dituzu. Informazio gehiago:

En Arrasate los residuos se clasifican en origen: envases ligeros (contenedor amarillo), el vidrio (contenedor verde), el papel y cartón (contenedor azul), el rechazo (contenedor gris) y el orgánico (contenedor marrón). Para la apertura de estas dos últimas, hay que conseguir una tarjeta en la Mancomunidad del Alto Deba. Además, en todos los barrios hay contenedores que recogen el aceite utilizado en la cocina, textiles y objetos pequeños reutilizables. Los trastos viejos (muebles, colchones, equipamientos electrónicos, etc.) se pueden depositar cerca de los contenedores los MARTES, de 20:00 – 22:00, llamando con antelación al siguiente teléfono: 943 71 19 38. Podrás ver las explicaciones e instrucciones necesarias para administrar los residuos generados en su hogar, en el GUIA “RECICLA SIN DUDAS”. Más información:

### HONDAKINEN KUDEAKETA BULEGOA · OFICINA DE GESTIÓN DE RESIDUOS

41

Nafarroa Etorbidea, 17 943 50 47 21

# Emakumea eta berdintasuna

Mujer e igualdad

Emakume Txokoa da Berdintasun arloaren zerbitzu bat Arrasateko Udalean. Emakumeak ahalduntzeko eta emakumeen topaketarako gune bat eta prestakuntza leku bat da. Gainera, emakumeen elkarteak ere badaude Arrasaten.

Emakume Txokoa es un servicio del departamento de Igualdad del Ayuntamiento, un espacio y un lugar formativo de empoderamiento de las mujeres y para el encuentro de mujeres. Además, también hay asociaciones de mujeres en Arrasate.

## EMAKUME TXOKOA (Berdintasun Saila)

EMAKUME TXOKOA (Área de Igualdad)

42

Jose Luis Iñarra Pasealekua, 10

943 79 41 39

emakumetxokoa@arrasate.eus

www.emakumetxokoa.arrasate.eus

## EKIN EMAKUMEAK ELKARTEA

ASOCIACIÓN EKIN EMAKUMEAK

43

Pablo Uranga 4, behea

943 79 83 70 / 651 70 79 36

emakumeak@ekinemakumeak.eus

## IMME ELKARTEA (Inclusión de la Mujer Musulmana de Euskadi)

ASOCIACIÓN IMME (Inclusión de la Mujer Musulmana de Euskadi)

44

Jose Luis Iñarra, 32

654 88 46 16 (Djamila)

djamila.zereiby@yahoo.es

# Sexologia zerbitzua
## Servicio de sexología

Sexualitatearen inguruan heziketa, sentsibilizazioa, aholkularitza eta informazioa, herri osoari zuzenduta. Harremanetan jartzeko edo kontsulta bat egiteko, bulegora joan zaitezke edo telefonoz deitu dezakezu.

Formación y sensibilización sobre sexualidad dirigida a toda la población. Atención directa, colaboración con colectivos y actividades: campañas, cursos, publicaciones, charlas, etc. Para ponerse en contacto o realizar una consulta, se puede acudir a la oficina o bien llamar por teléfono.

### SEXOLOGIA ZERBITZUA
SERVICIO DE SEXOLOGÍA

45

Garibai Etxea - Biteri, 3

943 25 20 66

sexologiazerbitzua@arrasate.eus

Astel. | Lun.: 10:00 > 13:00
Astear./Ost. | Mar./Jue. : 16:00 > 19:00

# Gainerako informazio interesgarria
## Otra información de interes

### UDALTZAINGOA
POLICÍA MUNICIPAL

46

Nafarroa etorbidea 23.

943 25 20 10

### ERTZAINTZA
ERTZAINTZA

47

Gipuzkoa etorbidea 2.

943 53 47 20

### CARITAS
CÁRITAS

48

Arrasate Pasealekua, 5.

943 79 18 87

### ARRASATEKO BAKE EPAITEGIA
JUZGADO DE PAZ DE ARRASATE

49

Ignazio Zuloaga, 6.

943 79 12 78

### SUHILTZAILEAK
BOMBEROS

943 78 28 00

### TAXIAK
TAXIS

50

Garibai Hiribidea, 5.

943 79 12 22

# **BALIABIDE**GIDA

Guía de recursos






## ARRASATEKO UDALA


ARRASATEKO UDALA


Herriko Plaza, 1, 20500 Arrasate, Gipuzkoa

Astelehenetik · Ostiralera / De lunes a Viernes: 8:30-15:00

943 25 20 00

udala@arrasate.eus

43.065760, -2.489941

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN